

01

KIROLA BAINO GEHIAGO

IBILBIDEA

Unitate honetan, kirol-munduarekin lotutako hainbat testu (erreportajeak, berriak, elkarrizketak...) irakurtzea eta entzutea proposatzen dizugu. Testu horien lanketen eta azterketen bitartez, aukera izango duzu egungo eta garai bateko hainbat kirol eta hainbat euskal kirolari ezagutzeko: haien kirol-ibilbidea, izan dituzten bizipenak, haien lorpenak, sariak, une garrantzitsuak... Azkenik, eta landutako guztia kontuan hartuz, gustuko duzun kirolari baten biografia idaztea proposatzen dizugu, *Wikipedia* entziklopedia askean argitaratzeko.

A KIROLA, OSASUNA ETA KIROL-JARDUERAK

Eusko Jaurlaritzak kirolaren eta osasunaren inguruan egindako inkesta baten emaitzak nola ematen diren aztertuko duzu, berri batean. Bukaeran, aztertutakoa baliatuz, kirol-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko datu batzuk irakurri eta neska-mutilen jarrerari eta parte-hartzeari buruzko ondorio batzuk atera beharko dituzu.

B BIZIPEN BERRIAK

Egunkari bateko erreportaje batean, bi kirolari gazteren kirol-ibilbidea eta bizipenak nola kontatzen diren landuko duzu. Amaieran, landutakoa baliatuz, etxetik urrun egin duzun ikastaro edo lanen batean izan dituzun bizipenak eta nola sentitu zaren azaldu beharko duzu blog batean.

C ELITEKO KIROLARIAK

Wikipediako testu batean, eliteko kirolari baten kirol-ibilbidea eta lorpenak nola azaltzen diren landuko duzu, eta Berria Telebistan, Joko Olinpikoetan kirolari horrek urrea lortu zueneko bizipena kontatzen duen elkarrizketa aztertuko duzu. Azkenik, gustuko pertsonaia bati egingo zenizkiokeen galderen gidoia prestatu beharko duzu. Amaitzeko, gustuko duzun pertsonaia bati buruzko informazioa *Wikipedian* emateko beharko duzun informazioa aurreikusi eta gidoia presatu beharko duzu.

D GARAI BATEKO ERRAKETISTAK

Testu historiko batean, garai bateko erraketistak nor ziren, kirol haren inguruko historia eta Agustina Otaolaren *biografia* nola azaltzen diren landuko duzu. Amaieran, zure gustukoa den kirolari baten biografia bilatu eta aztertu beharko duzu.

ZEURE TXANDA!

Azkenik, unitatean zehar aztertutako testuak eta landutako hizkuntza-baliabideak kontuan hartuz, gustuko duzun kirolari baten biografia idatziko duzu, *Wikipedia* entziklopedia askean argitaratzeko.



KIROLA, OSASUNA ETA KIROL-JARDUERAK

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzak osasunari eta kirol-jarduerari buruz egindako inkesta baten emaitzak azaltzen dituen berri bat aztertuko duzu. Horren bidez, gaiarekin lotutako lexikoa ikasteko aukera izango duzu, datuak ehunekoetan nola ematen diren landuko duzu eta, halaber, berriak ulertzeko estrategiak landuko dituzu. Bukaeran, kirol-esparruan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko datu batzuk irakurri beharko dituzu eta ondorio batzuk atera nesken eta mutilen jarrerari eta parte-hartzeari buruz.



Jarduera fisikoa egiteak onura nabarmenak dituela ez du inork zalantzan jartzen; ona da buruarentzat, ona da gizarte-harremanetarako, ona da norberaren garapenerako... Onura horiek azaltzen ditugunean, hainbat hitz erabil ditzakegu.

- 1 Irakurri zerrendatuta dauden onura horietako batzuk, eta osatu esaldi bakoitza dagokion hitzekin. Kirola egiten duzunean, sentitzen al duzu onura horietakoren bat? Zein? Markatu.

ahalmena
kanporatzen
odol-zirkulazioa
askatzea
indarra eta malgutasuna
arreta-gaitasuna
galtzen
eskuratzea
hurbiltzea
produkzioa

1. Giharren *indarra eta malgutasuna* hobetzen ditu.
2. Tentsioak ahalbideratzen du.
3. Bihotza eta biriken handitzen ditu.
4. Gehiegizko kiloak laguntzen du.
5. Balioak bultzatzen du.
6. aktibatzen du.
7. Kultura desberdinetako pertsonak elkarrengana errazten du.
8. Gehiegizko likidoak laguntzen du.
9. Kontzentrazio- eta handitzen dira.
10. Endorfinen suspertzen du.

Erakunde publikoek inkesten bidez, gai jakinen inguruan gizarteak dituen jarrerak, joerak, iritziak... jasotzen dituzte askotan, eta medioek horien berri ematen. Ondoko berrian, Eusko Jaurlaritzaren *Kirola eta Jarduera Fisikoa 2017* azterlanean gizarteak osasunaren eta kirol-jardueraren inguruan duen iritzia eta jarrerak jasotzen dira.





2 Irakurri Jaurlaritzaren *Kirola eta Jarduera Fisikoa 2017* azterlanaren berria, eta kokatu titulua, berriaren hasiera, tarteko izenburuak eta hitzez hitzeko aipuak behar diren lekuan.

a Kirol-jarduera

b Kirola eta osasuna

c Kirol-jardueraren ezaugarriak

e Euskal gizartearen % 64k kirola egiten du, eta % 98ren ustez, osasunerako garrantzitsua da kirola egitea

d Eusko Jauraritzak *Kirola eta Jarduera Fisikoa 2017* azterlanean aurkeztu duenez, euskal gizartearen % 64k kirola egiten du, nahiz eta gizon eta emakumeen artean alde nabarmena egon. Txostenak, bestalde, argi erakusten du gizarteak lotura zuzena egiten duela kirolaren eta osasunaren artean, eta gehien praktikatzen diren jarduerak osasunera eta aisialdira bideratuta daudela, lehiatzeko edozein helbururen gainetik.

f "tentsioak askatzea ahalbidetzen du", "balioak eskuratzea bultzatzen du", "kultura ezberdinetako pertsonak elkarrengana hurbiltzea errazten du."

g "osasun-iturri"

h "oso ados"

ESTRATEGIAK

- Berrietan, tituluarekin eta argazkiarekin batera, sarrerak ematen du informaziorik garrantzitsuenak.
- Berria ataletan banatuta ager daiteke, izenburu eta guzti; bertan, zer gairi buruz hitz egingo den adierazten da, eta tipografiak nabarmenduta ager daiteke.
- Berrietan hitzez hitzeko aipuak komatxo artean jartzen dira.

(1) e

2017ko irailak 25

(2) __

(3) __

Ikerlanaren arabera, inkestak % 75en iritziz, jarduera fisikoa egitea (4) __ da eta (5) __ daude baieztapen horrekin. Horiei gehitu behar zaie iritzi horrekin "nahiko ados" dagoen % 23; hortaz, guztira, % 98ren ustez jarduera fisikoren bat egitea garrantzitsua da osasuntsu egoteko.

OMEk (Osasunaren Mundu Erakundea) berriki adierazi du jarduera fisikorik eza dela herrialde garatueta gaixotasun kronikoak izateko gehien laguntzen duen faktoreetako bat; hilkortasun-arriskuaren laugarren faktorea da mundu osoan (heriotzen % 6 mundu-mailan). Horren gainetik, honako hauek daude soilik: hipertentsioa, tabakoaren kontsumoa eta gehiegizko glukosa odolean.

Inkestak gehienbat hautematen dituzten onuren artean, honako hauek daude: (6) __.

Bestalde, Eskola Kirola da, herritarren aburuz, babes gehien jaso beharko lukeena; gurasoen % 95ek nahiko luke euren seme-alabek kirol-jardueraren bat egitea, eta % 92ren iritziz kirolak eta jarduera fisikoak "oso toki garrantzitsuan" edo "nahiko garrantzitsuan" egon beharko lukete. Alabaina, gizartearen % 77k uste du instituzioek kirol ikuskizuna laguntzen dutela batez ere.

(7) __

Kirol-jarduerari dagokionez, azterlanak oso datu positiboak utzi ditu. Hala, inkestak % 64k dio kirola egiten duela (% 29k kirol-jarduera bat eta % 35ek, berriz, bat baino gehiago). 2004an kirola praktikatzen zutenak % 52 ziren. Alabaina, gizonen eta emakumeen arteko aldea 13 puntukoa da: gizonen % 70ek eta emakumeen % 57k egiten du kirola.

(8) __

EAEko herritarrek gehien egiten dituzten kirol-jarduerak osasunera eta aisialdira daude bideratuta bereziki: ibiltzea % 24; txirrindularitza, mountain bike % 22; oinezko lasterketa % 18; igeriketa % 18; mendizaletasuna, xendazaletasuna % 18; musikaz lagundutako jarduerak (aerobic, dantza, zumba, etab.) % 15 eta gimnasioko jarduerak % 14. Beste kirol batzuk, esaterako futbola (% 9) edo saskibaloia (% 5), haiekiko urrun geratzen dira.

2004an egindako txostenaren aldean, aipatzekoa da ibiltzea aukeratzen dutenen kopuruan izandako jaitsiera, % 30etik % 24ra. Korrika egiten dutenen kopurua, aldiz, areagotu egin da, % 11tik % 18ra, baita musika-euskarria duten jarduerak egiten dituztenena ere % 8tik % 15era. Federazio-lizentziei dagokienez, herritarren % 16k federazioko kirol-lizentzia bat edo gehiago du, eta hori kirola egiten dutenen % 24 da.

Eusko Jauraritzak egindako lan horren inkestak telefono bidezko 1.000 elkarrizketaren bitartez egin ziren.

Iturria: *Euskadi.eus*, moldatua.



3 Zer hitz erabiltzen dira testuan "azterlan" hitzaren sinonimo edo baliokide gisa?

azterlan:

4 Berria irakurrita atera daitezkeen ondorio hauetatik, zein dira egia eta zein gezurra?

1. EAEko herritar gehienek kirola egiten badute ere, lehiari baino garrantzi handiagoa ematen diote norberaren ongizateari. **Egia**
2. Jarduera fisikoak hipertentsioa, tabakoaren kontsumoa eta odoleko glukosa jaisten laguntzen du.
3. Guraso gehienek uste dute Eskola Kirola oso garrantzitsua dela euren seme-alabentzat eta instituzioen aldetik nahikoa laguntza jasotzen duela.
4. Gizonek eta emakumeek antzeko maiztasunarekin egiten dituzte kirol-jarduerak.
5. Herritar gehienek egiten dituzten kirol-jarduerak ondo pasatzera bideratuta daude, eta horien artean gehien egiten dituztenak musikaz lagundutakoak dira: aerobik, dantza, zumba...
6. Kirola egiten duten herritarren laurdena dago gutxi gorabehera federatuta.

Berriak ematean, ohikoa da besteen ahotsak erabiltzea berriari sinesgarritasuna emateko, eta datu zehatzak ehunekoetan ematea proportzioa emateko, *Kirola eta Jarduera Fisikoa 2017* azterlanari buruzko berrian gertatzen den bezala.



5 Berridatzi esaldi hauek, ematen zaizun egitura kontuan hartuta.

1. Eusko Jaurlaritzaren *Kirola eta Jarduera Fisikoa 2017* azterlanaren arabera, euskal gizartearen % 64k kirola egiten du.
Eusko Jaurlaritzaren Kirola eta Jarduera Fisikoa 2017 azterlanak dioenez, **euskal gizartearen % 64** kirolzalea da.
2. Azterlan horren arabera, euskal gizarteak lotura zuzena egiten du kirolaren eta osasunaren artean.
..... dio
3. Txostenaren arabera, gizonen % 70ek eta emakumeen % 57k egiten du kirola.
..... dioenez,
4. Euskal gizartearen % 98ren ustez, osasunerako garrantzitsua da kirola egitea.
..... dago.
5. Gurasoen % 92ren iritziz, kirolak eta jarduera fisikoak "oso toki garrantzitsuan" edo "nahiko garrantzitsuan" egon beharko lukete.
..... iruditzen zaio
6. Gizartearen % 77ri iruditzen zaio instituzioek, batez ere, kirol ikuskizuna laguntzen dutela.
..... dago.

! KONTUAN HARTU

Besteek diotena azaltzeko, hainbat egitura erabil daitezke:

- -aren, -(r)en arabera
- -(e)nez
- Noren/zeren ustez, iritziz, aburuz
- dio, iruditzen zaio... -(e)la, -(e)lakoan egon...

! KONTUAN HARTU

Zenbaki bidezko datuak ehunekotan emateko, hona hemen hainbat argibide:

- % ikurra zenbakiaren aurretik jartzen da, eta bien artean tarteaz uzten da.
» Euskal gizartearen % **64k** kirola egiten du.
- Ehunekoaren zenbakia mugagabearen deklinatzen da, eta deklinabide-marka zuzenean zenbakiari erantzen zaio, marrazkiz gabe.
» Inkestak % **75en** iritziz, jarduera fisikoa egitea "osasun-iturri" da.
- Kasu batzuetan, mugatu singularrean deklina daiteke ehunekoak; hau da, aurretik emandako kopuru(ar)en osagarria denean. Kasu horietan, **gainerako** eta **beste** hitzak azaltzen dira.
» Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da; % **60** ebazpenarekin batera eta **gainerako** % **40** proiektua amaitutakoan.



ZEURE TXANDA!

Amaitzeko, Kirol-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko planetik ateratako beste datu batzuk izango dituzu; datu horien konparazioa eginez, ondorio batzuk ateratzea proposatzen dizugu, ikastetxe bateko aldizkarian argitaratzeko.



6 Irakurri taula hauetan ematen diren datuak. Zer ondorio aterako zenituzke? Egin alderaketak, ehunekoak erabiliz.

1 Sexuaren arabera parte-hartzea Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan (2005-2013)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Batez bestekoa, ehunekotan
Neskak	553	636	649	717	765	731	774	848	981	% 40,3
Mutilak	741	768	746	788	774	742	1256	1299	1454	% 59,7

2 Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetako parte-hartzea, sexuaren eta disziplinaren arabera (2013. urtea).



	Neskak	Mutilak	Guztira	Nesken %
Aerobica	113	0	113	% 10
Xake	12	45	58	% 22,41
Atletismoa	145	146	291	% 49,83
Saskibaloia	102	109	211	% 48,34
Eskubaloia	43	42	85	% 50,59
Txirrindularitza	14	75	89	% 15,73
Kirol egokitua	3	23	26	% 11,54
Futbola	32	480	512	% 6,25
Areto-futbola	0	36	36	% 0
Gimnastika erritmikoa	124	1	125	% 99,20
Herri-kirolak	40	75	115	% 34,78
Judoa	28	44	72	% 38,89
Karatea	58	79	137	% 42,34
Igeriketa	115	93	208	% 55,29
Padela	6	6	12	% 50
Euskal pilota	14	50	64	% 21,88
Errugbia	4	45	49	% 8,16
Tenisa	6	6	12	% 50
Mahai-tenisa	17	28	45	% 37,78
Boleibola	32	0	32	% 100

3 Hiru lurralde historikoetako eskolarteko kirol-programetako parte-hartzea, adin-kategorien arabera (2006. urtea).

	Gizpukoa		Bizkaia		Araba	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Benjamin aurrekoak	4	3	0	0	1.037	843
Benjaminak	4.897	3.545	6.107	2.493	2.413	1.417
Kimuak	4.837	3.669	4.944	3.078	2.516	1.831
Haurrak	2.945	2.644	3.176	2.380	2.216	1.615
Kadeteak	965	989	712	725	1001	837

Iturria: Euskadi.eus, moldatua.

